

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure bezeroak afaldu eta gaur diskoteka batean pasa nahi duten pertsonak izango dira eta "sagardoteka" horretarako aukera bikaina iruditzen zaigu. Hala ere, bezeroak bi merkatutan banatuko ditugu, izan ere gure "sagardoteka"-k bi zati dituen bezala, bakoitzaren bezero kantitatea ezberdina izango da.

Esan bezala, bezeroak bi merkatutan banatuko ditugu, eta egokiena adinaren arabera edo demografiaren arabera sailkatzea iruditzen zaigu.

Merkatu zabala: Merkatu honen parte dira diskoteka eta sagardotegiaren bezero izango diren pertsonak edota diskotekaren bezeroak bakarrik izango direnak. Hauek izango dira bezero nagusiak, gazteak baitira horrelako tokietan kontsumitzaile nagusiak. Bezero hauek nagusiki gazteak izango dira, 40 urtez azpikoak.



Merkatu txikia: Merkatu honetan sartuko genituzke sagardotegiaren zatiko bezero izango diren pertsonak. Gure ustez, pertsona helduak izango dira sagardotegiko bezeroak bakarrik izango direnak, nahiz eta gazteak ere merkatu honen parte izan daitezkeen. Beraz, merkatu honen parte, nagusiki behintzat, 40 urtetik gorako pertsonak izango direla uste dugu.

